


KIKIPI



JESSE-86

Aitor eta Enekor *eta Iruakolen*
nire gurasoengandik
hartu neban
euskerearen arnaseari
eutsi gurean

Egileak, *asabeak*

TXIKIPITI

RAMON ETXEBARRIA A.

Egilea: Ramón Etxebarria Aiesta

Marrazkilaria: Jesus Antonio Ruiz «Jesse»

Eragilea: Fermin Iraolagoitia

Margoa: Ernio, S. L.


ISBN: 84 - 398 - 7470 - 7

Depósito Legal: BI 1.266 - 86

Inprimaketa: Graficas IGARRI, S. C. L.

Argitaratzailea: IBAIZABAL. Euba Tnoak.: 673 04 86 - 673 18 50

KAIKO, ADISKIDE !
ESKERRAK ZURE ETXERA
EROATEAGAITIK ETA LIBURU
HONEN AZALA ZABALTZEAGAITIK,
BAINA EZ GELDITU HEMEN,
JARRAITU, JARRAITU
AURRERA
IRAKURTEN.



TXIKIPITI ESKOLAN.


Herri txiki baten, munduko herririk txikienean eta munduko gizonik txikienak bizi ziran lekuan, inoizkorik eta umerik txikiena jaio zan. Jaiokeran txikiena eta inoiz ere ez zan hazten. Urte batzuk geroago hazi ezeze txikitu egiten zan eta edozein bitarte edo zulotatik sartzeko gauza izaten zan.

Buruz oso argia da Txikipiti baina bere lagunak barre egiten deutsie txikia dalako. Eskola-lagunak eta maisuak ere adarra jotzen deutsie.



Oraingoan Txikipiti eskolara heltzen da eta zerbait asmatzen dau. Jolasketako orduan, bere lagunak kanpora doazanean, eskola barruko erlojuan sartzen da. Bere lagunak ez dabe ikusten kanpoan, baina hain da txikia....«mahaiperen baten egondo da», esaten dabe lagunak.

Txikipiti erlojuaren barruan dago eta hogeita bost minutu aurreratzen dau erlojua. Maisuak erlojura begiratzen dau eta ordua dala ikusi dauanean ume guztiak barrura sartzen dauz. Umeak kexaz dagoz jolasketa laburra izan dalako baina maisuak, ordua ordu dala ta barrura.






Hasarre hau kentzeko maisuak "VIDEO" bat ipinten dau. Ume guztiak oso pozik dagoz ikusten. "Video"ko pelikulea "Erraldoi Txikia" da. Pelikula hau ikusten dagozanean, Txikipiti dabe danak buruan eta izugarrizko barreak egiten dabez. "Hori Txikipiti da", esaten dabe.

Txikipiti oraindino erloju barruan dago, dana entzuten dau. Lagunen barreak entzuten nekatzen danean, erlojua hiru ordu lauren atzeratzen dau.

Pelikula hau ikusteko eskola barruan ilunetan dagoz eta Txikipiti ordua heldu danean, erlojutik urten eta ixil-ixilik etxera doa inori ezer esan barik. Beste guztiak maisuagaz batera barruan dagoz eta ez dira konturatzen berandu dala.

Txikipitik bidean, etxerantzean, herriko alkatea aurkitzen dau eta badinotso: "Gaur maisuak ez dauz atera gura umeak eskolatik".



Alkateak hau entzuten dauanean berehala doa eskolara, bere semea be hantxe dago ta. Txikipiti be beragaz doa. Eskolara heltzen diranean maisua eta alkatea oso hasarre dabilz berbetan. Bitartean Txikipiti barriro ere erloju barruan sartu da eta erlojua bere orduan ipini. Ume guztiak entzuten dabez zarataka alkatea eta maisua.




Alkateak: Ez dozu ikusten ze ordu dan umeak hemen barruan eukiteko?.


Maisuak: Baina oraindik ez da ordua eta zer dinozu?. Ez dozu ikusten hiru ordu lauren falta dirala eguerdiko hamabietarako?.

Alkateak: Gaurkoetarako ez behintzat!. Begiratu eizu erlojura eta esango deustazu!.

Maisuak: Bai Horixe! Zatoz neugaz barrura eta biok begiratuko deustagu. Sartu dira alkatea eta maisua barrura eta zein izan ete da maisuaren aurpegia, erlojua ia ordu batetan ikusi dauanean, eta umeak hamabietan atera behar!.

Hasarre honetan, Txikipiti, elorjutik urten eta bere mahai ondora doa. Alkatearen azken berbak pozik entzun dauz. Alkateak maisuari mehatxu bat bota deustalako. Barriro egiten badau herritik kanpora bialduko dauala esan deutso maisuari.





TXIKIPITI HASARRE.

Txikipiti, hamar nebarrebatatik gazteena eta txikiena da. Gurasoak, etxean jende gehiegi dirala ta osaba baten etxera bialtzen dabe. Osabea oso aberatsa da eta gainera ez dauka seme-alabarik eta bere emazteagaz bakarrik bizi da.

Osabea ez dago bapere ume txikiak etxean eukiten ohituta, horregaitik nahiko gogor egiten deutso Txikipitiri.

Izekoak, osabearen aurrean ez dau ezer esaten. Osabea bera da dana. Onezean zeozer baina txarrezean ez dago zereginik beragaz.

Osaba hau negozioko gizona dogu eta gaur bazkari bat dauka bere

kideekin. Bazkari honetara bere emaztea ere badoa. Lehenengotan, Txikipiti non itzi pentsatzen hasten dira baina eurekaz eroatea erabagi dabe azkenean.

«Txikipiti hain da txikia.... non eroango dogu?», esaten deutso izekoak osabeari. Osabeak bere jakeko boltsan eroango dauala erantzuten deutso izekoari.

Esan eta egin. Jakeko boltsan sartzen dau eta ixilik egoteko pepita eta gominola batzuk botatzen deutzaz jateko.

Heldu dira osabea eta izekoa jatetxe dotore batera. Han lagunei eskua emon eta jaten hasi baino lehen zertxobait edaten dabe. Jatetxe horretan bero egiten dau. Txikipiti izerditan dago osabearen boltsan, baina honek ez deutso jaramonik egiten eta negarrez hasten da. Izerdi, negar-anpulu eta gominolen azukera ta pepiten gatzaz izugarrizko morokila egiten dau osabearen boltsan. Halakoren baten, osabearen traje urdineko boltsea zuritzen hasten da kanpaldetik.

Izekoa konturatzen danean, ixil-ixilik, bere gizonari besotik oratu eta telefonora doazela esan eta kanpora daroa lotsatuta, zelan edo halan garbitzeko.


Garbitu dabe jakeko boltzea eta Txikipitiri izugarrizko mehatxuak bota. Lehengo boltsatik atera eta bestean sartzen dau osabeak Txikipiti. Oraingoan janaririk barik.

Barriro datoz lagunengana. Horieek mahaian jesarrita dagoz jaten hasteko prest. Osabea mahai ondora heltzen danean bere emaztearen soinekoa siladarrean ipintzen dabilenean boltsatik urten eta mahaiko plater bien bitartean sarte a lortzen dau. Inor ez da konturatzen plater bien bitartean dagoanik. Inguru guztia loraz eta edalontziz beteta dago. Txikipiti ixil-ixilik dago, dana entzuten dau, batez ere bere osabearen eta ondokoaren alkarrizketa. Arduraz dago Txikipiti norbaitek ikusiko ete dauan. Baina osabeak jan dauzan langostino eta ostra azalen artean ostenduta dago.



Halako baten, ondokoak esaten deutso osabeari: "Loba bat daukazula zeugaz entzun dot".

"Bai", erantzuten deutso. "Badakizu, nire anaiaren etxean asko be badira ta, anaiak baino modu hobea be badaukat eta. Gaur auzokoarenean itzi dogu hona etortearren. Oso ondo esaten deusagu. Gureztat seme bat da".






Mahaikideok salda beroa hartzen dagoz eta Txikipiti berotzen hasi da osabearen plater bitartean. Saldearen beroak eta osabearen berbak irakiten, sutan eta garretan ipinten dabe Txikipiti.

Birritan pentsatu barik Txikipitik, ez dakit nondik, baina ahal izan dauan eta idarrik handienaz, alde batetik osabearen platera jaso eta salda guztia praketatik behera botaten deutso.

Osabeak, «ai!» bat esanaz zutundu egiten da. Lotsaz beterik kanpora doa. Bere andrea ere lotsaz beterik atzetik doa. Kanpora urten eta berehala bota dau osabeak eskua boltsara ia Txikipiti han dagoan jakiteko.

Zer uste dozu? Barruan aurkitu dauala? Ezetz? Ez dakizu Txikipiti oso zuhurra dana? Osabea zutundu danean saldea jausi eta gero, jakeko boltsea mahai ertzeraino heltzen izan jako eta denporarik galdu barik sartu da Txikipiti barriro boltsan. Kanpoan gelditu balitz zer izango ete zan!.



TXIKIPITI AFRIKAN




Txikipiti oporretan dagoala, bere osabeari Afrikara joan-beharra etorri jako. Hango lantegi bateko erdi-jabea da ta ostera bat egitea pentsatu dau langileak ikusteko eta lantegiko gora-beherak zelan dagozan jakiteko.

Txikipiti be begaraz daroa. Bide zati bat abioiz, beste zati bat itsasontziz, kotxez....., egun batzuk barru heldu dira. Goi mailako arrerea egiten deutsie afrikarrak Txikipitiren osabeari.

Egun batzuetarako joan da eta horregaitik etxe dotore, argitsu eta handi bat alkilatu deutsie. Horrezaz gainera hainbat neskame eta morroi dagoz etxe horretan ingurua zaintzeko.

Etxe inguruko landetan era guztietako animaliak ikusten dira, horregaitik osabeak kontuz ibilteko esaten deutso eta etxetik ez urteteko.





Hurrengo egunean osabea
bere zereginetan joan da
lantegira eta Txikipiti
logelako leihotik
begira dago.

Halako baten, bere logelako
leihopean elefante txikitxu
bat ikusten dau. Elefantea
be berari begira dago.

Alkarri irribarre bat egin eta lagun egiten dira.

Apur bat geroago elefanteak bere tronpea luzatu egiten dau Txikipiti kontuzkontuz hartzeko eta bere lepo gainean ipinteko.

Elefantea etxe ingurutik aldatzen hasi da Txikipitiri hango barriak erakusteko. Ze pozik doan gure Txikipiti! Barre-zantzoka eta zaltoka doa. Batzuetan ikaragarriko galapadak egiten ditu elefantearen lepotzarrean,
beste batzuetan tronpa barrura sartu eta zarata
bat eginez izugarriko oihartzuna entzuten dau.



Mundu zorienttsua da benetan Txikipitirentzat. Elefantea bera be oso pozik eta barreka doa.

Tronpa barruan edo lepo gainean aspertzen danean, hortzagin batetik behera joaten da tobogan baten balebil legez, eta lurrera jausi baino lehen kontuz- kontuz tronpa punteaz hartu eta barriro be lehenena.

Eguna iluntzen hasi danean Txikipiti arduratzen hasi da eta ez daki non dagoan be. Egun osoa emon dau elefantearen gainean jan barik. Orain oso nekatuta dago, ia ia lo dago. Elefanteak kontuz kontuz bere belarrian ipinten dau eta etxera daroa.



Heldu dira etxera, elefanteak barriro tronpa gainean hartu eta bere logelako leihoan izten dau.

Txikipitik kili-kili batzuk egiten deutsoz tronpan eta hurrengo egunerarte agurtu dabe alkar.

TXIKIPITI AMESETAN




Txikipiti elefanteagaz ibili eta gero ohean dago, lotań. Guztiz nekatuta itzuli da. Lotan dagoen bitartean amesetan hasten da.


Beste ibilaldi bat egiten dau elefante gainean. Atzoko bide bardinetik doaz baina oraingoan aurrerago doaz.

Leku zoragarri batera heldu dira. Aintzika edo pantano inguru batera heldu dira. Aintzika ingurua dana arbolaz baterik dago.

Uretan era guztietako eta kolore guztietako arraintxoak. Ur garden-gardenak, urdin-urdinak, espilu baten modukoa da. Arbolen orriak ere, batzuk orlegiak, beste batzuk horiskak, gorriskak, zuriskak, argiak, ilunak, era guztietakoak.

Haizea ere oso epela eta usai gozoduna. Kontuz-kontuz txerutzen dabe alkar haizeak eta urak.





Guzti hau ikusten dago Txikipiti elefantearen gainean. Pozen dagoan momentoan eguraldia aldatu egiten da eta lehengo zero urdina ilundu egiten da, lainoz beteten da. Ura be ilundu egiten da eta lehengo arrain otzan eta koloretsuak orain kokodriko eta arrain bildurgarri bihurtu dira. Lehengo haize txeratsua orain indartu eta hasarratu egin da. Halako baten, joten dau inazitu batek eta elefanteak egiten dauan ikareaz Txikipiti uretara jausten da.

Ur ertzean dabil kanpora urten gurean baina ezin dau. Haizea indartsua da eta barrurantz daroa. Geroago eta barrurago. Aienaka dabil Txikipiti. Elefanteak ezin deutso lagundu. Tronpea luzatuta dauka baina ez da nahikoa. Elefantea zuhaitz-adar baten bila doa uretarik aterateko. Txikipiti noizean behin ur gainean eta noizean behin urpean dabil. Ito behar dau. Elefantea ez da agiri. zarataka dabil baina ez deutso entzuten. Urrunetik arrain motz bat ikusten dau. Beragana dator. Eta arrainaren atzetik kokodriko bat arraina jaten.



Ur tragu bat ere edaten dau.


Ur zikina, lohia. Lehen garbi-garbiak izan dira eta orain gehiagoko barik baltzak eta iguingarriak dira. Arrainak ahoa zabaldu dau. Txikipiti jateko ete da, ala atzetik kokodriloa jatorkolako jateko asmotan eta nekakuta detorrelako?.

Txikipitik ezin dau gehiago. Urpera doa. Urpera sartuaz batera ozta-oztaz aho bi ikusten ditu zabalik. Kokodriloak ahoa zabaltzen dau eta arraina barrura daroa eta ondoren bera ere bai arrainaren ahoa.

Kokodriloak egin dau bere bazkaira eta orain uretatik kanpora dator atsedean bat hartzeko. Uretatik urten eta eguzkitan dago lotan.


Txikipiti burrukan dabil arrainaren ahoan kanpora urteteko asmotan. Arrainak ez ditu bere haginak zabaltzen eta ezin urten. Ahalegin handiak egin ditu baina alperrik. Kanpoan elefantearen deiak entzuten ditu eta berak ere barrutik erantzuten deitso. Elefanteak ez ditu Txikipitiren zaratak entzuten. Elefantea antzikara begira dator, ez dau ikusten aurrekorik, arduraz beterik dator.





Halako baten izugarrizko zarata bat entzuten da. Elefanteak konturatu barik lo dagoan kokodrikoa zapaldu dau eta honek bere ahotzarra zabalduz egin dau zarata hori. Arraina, kokodrikoaren ahoa zabalik ikusi dauanean salto bat egin eta kampa dator. Pozaren pozaz, iupi! esateko ahoa zabaldu dau eta Txikipitik be arrainak egin dauan moduan kampa urten ahal dau.

Elefanteari kontatzera doa baina osabearen iratxargailuak iratxartzen dau. Bihotza taupadaka dauka oraindino. ¡Zelango bildurra pasatu dodan!, dino berekautan.




AZKEN EGUNA AFRIKAN.

Hirugarren eguna da eta Txikipitiren osabeak amaitu dauz bere lanak. Bere lagun eta adiskideak agurtzen dauzan bitartean, Txikipitik bere azken ibilaldia egiten dau elefanteagaz.

Elefanteak aurreko egunean legez bere tronpa gainean hartu eta lepo gainera daroa. Gaur ere Txikipitik izugarritzko galapadak eta dantzak dabilz elefantearen lepotzarrean. Egerdia heldu danean, iturri batera joan dira bazkaltzen. Txikipiti laster bete da. Urretxa baten laurena nahikoa da beretzat. Elefanteak ostera, hau jan, hori jan, bestea jan, jan eta jan eta ez da inoiz beteten. Bazkaria amaitu dabenean eguzkitara doaz. Elefantea lotan dago Txikipitik bere belarri gainean dantza batzuk egiten dauzan bitartean.

Halako baten, ez dakit, elefanteari kili-kili egin edo ta....elefantearen belarri-zulotik behera jausten da Txikipiti. Ez dau minik egiten. Belarri barruan ziak dagoz, zi luze batzuk dira, oso elastikoak. Kirikinolatzaren moduko ziak baina askoz ere bigunagoak. Azkenengo zira heldu danean uste dau hantxe geldituko dala baina elefanteak barriro ere kilikiliak sentitu eta beste ikara bat egiten dau. Ikara honen eraginez beste zulo handi batera jausten da.

Oraingoan be suerte ona izan dau. Sare baten gainera jausi da. Ez dau minik egin. Sere oso elastikoa, zirkuetan saltuak egiteko erabiltzen



dabezan modukoa. Sarea gelditu arte dantzan dabil Txikipiti. Bere poz-alauriak izugarrizko oihartzuna egiten dabe. "lupi! lupi!", dino pozez baterik.


Sare hori gelditu danean, izerditan, batera eta bestera begiratzen hasi da. Nonondik zulo txikitxu bat aurkitzen dau eta barrura doa. Barruàn ia-ia ez da ezer ikusten. Lehen saltuka ibili dan sareak argiari ez deutso izten sartzen. Halan da guztiz ere iluntasunera ohitu egin da eta badiruri zertxobait ikusten dauala.


"Zer da hau!", dino berekautan. "Nire osabearen lantegiaren modukoa da!". Noizean behin, kanpoko sarea mogitzen danean, barrukaldean hazur-kate bat mogitzen da. Txikipitirentzat mendi batzuk dira han mogitzen diranak. Alde guztietara begira dago. Leiho batzuk ikusten dauz. Bata arrautza itxurakoa da eta bestea biribila. Leiho biak zabaltzen dauz eta orain bai ikusten dauala! "Benetako makina bat da!", esaten dau.

"Etxera noanean osabeari esango deusat bere lantegia ikusi dodala".

Txikipiti aurrera doa. Ur-bide handi bi ikusten dauz. Elefanteak burua mogitzen dauanean, hortzadar antzeko ur-bideetan, zerbait mogitzen da. Ur-bide honeek erdi biribilak dira.

Aurrerago eta gauza ikaragarriok ikusten ditu. Laberinto baten antza dauka. Izugarrizko barakuilo bat ere ikusi dau. Barakuiloaren barruan begira hasten da eta barrua hutsik ikusten dauanean ikaratu egiten da. Uste dau bera jausi dan








moduan, egunen baten barakuilo hori ere jausi zala eta orain betiko han gelditu beharko dauala. Barakuilo barrura doa eta ahaztu egiten da lehengo harazoaz. Olgetan dabil tobogan baten balebil legez. Oso pozik dabil. "lupi! lupi!. Hau bai lantegiaren polita!", dino.

Denporea aurrera eta saltoka saltoka nekatu egin da. Ia-ia lo dago Txikipiti. Elefantea itxartu da eta Txikipiti ikusten ez dauanean orroeka hasten da.

Txikipiti barakuiloaren barruan dago eta zaratearen zarateaz ia belarriak apurtuta kanporantza dator.






Heldu da hasieran jausi dan sarera baina handik gora nork igon!. Goragoan ikusten dauz lehenengo ziak baina ez da heltzen haraino. Zirkuan paiasoak egiten dabon moduan hasten da saltoka baina ezin lortu zi bati heltzerik.

Txikipiti negarrez hasten da. Barakuiloa gogoratzen dau. Uste dau bera ere hantxe geldituko dala betiko.

Elefanteak ez dau ikusten Txikipiti eta han inguruan ibiliko dala uste dau. Orduan lepoko zorri batzuk kentzeko buelta emoten dau eta Txikipiti konturatu barik lurrera jausten da.

Kanpora urten dauanean hauxe dino: "Ez dakit zein izan dan hobea, atzoko amesetea ala gaurko estukurea!".



TXIKIPITI ETA SATORRA.

Txikipiti mendizalea da eta egun eguskitsu baten etxetik urten eta badoa mendirantz. Oraindik bere izekoaren etxean bizi da eta honek ipinten deutso bazkaria boltsatxo baten. Arroza gustatzen jako gehien. Horregaitik izekoak arroz garau batzuk, titara bete putxa eta bokadilo bat ipinten deutsoz. Nahikoa da Txikipitirentzat. Edateko ere ur tantakadatxo batzuk ipinten deutsoz.


Oso pozik doa Txikipiti basorantz. Apurtxu bat nekatu egin da eta mendipe baten jasarri da atsedean aldi bat hartzeko. Bitartean bokadilo bat jaten dau. Bere aurretik inurri pilo bat pasatzen da eta harexei begira



dagoala bere ondoko lurra
mogidu egiten dala konturatzen
da. Lur guztia gainera jausten jako eta
ahalegin handiak egin arren lurrez estaldu
eta ia-ia ito egiten da. Halako baten, din-daun,
plast! zulo batetik jausten da.

Koskorreko batzuk hartu dauz baina ez dau egin min handirik. Dana dago ilunetan. Ez dau ezer ikusten. Begiak ahal dan guztian zabaldua ere ezin ezer ikusi. Zelan ikusiko dau ba, sator-zulo baten jausi da ta!. Batera luzatu eskuak, bestera begiratu eta ezer ere ez.

Denpora gitxi daroa oraindik barruan. Barrero ere eskuak luzatu ditu eta ikagarrizko sustu bat hartzen dau. Gauza bigun, leun, gozo, samur bat ikutzen dau. Bere izekoaren soinekoa gogoratzen dau baina ez da. Gauza bigun horrek berba egiten dutso: Ez



ikaratu laguntxu, zeure etxean zagoz. Ni satorra naz, ez deusut ezer egingo, lagun handiak egingo gara. Niri asko gustatzen jat, zuek kanpokook hona barrura etortea, holan jakiten dot zer pasatzen dar hor goian.




Txikipiti lasaitu egin da zerbait baina ez dau ezer ikusten eta ez dago gustora zulo honetan. Zuek satorrok ez dozue behar begirik baina gu begi barik ez gara ezer. Ezin dogu ezer egin. Gu ilunetan bildurtu egiten gara.

«Ez zaitetz ikaratu», esaten deutso satorrak. «Oraintxe ekarriko dot argia. Ez zaitetz inora joan, oraintxe nator».



Laster agertu da satorra linterna txiki bategaz argitan. Hau da poza Txikipitirentzat! Orain hirurok dagoz batera: Linternea, Txikipiti eta satorra. Satorra berbetan hasi da: Zuok kanpotarrok gu bizudun xeak garala uste dozue baina, ikusten dozu?, begi barik ez zarie ezer ere. Gu ostera begi barik gabiltz batera eta bestera. Bakoitzak geure bide-sareak egiten ditugu batera-bestera joateko, ez dogu behar semafororik ez soinekorik, beti daukagu bardina. Zuok ostera gaur bat eta bihar beste bat. Alkar nahastu besterik ez dozue egiten. Inguru guztiak kutsatu ta zikundu egiten dozuez. Erreketako arrain gizagaizo guztiak hil egin dozuez. Inguruetakozuhaitzak bota, erre, apurtu. Batetik bestera joateko izugarriako hegazkinak daukazuez. Zertarako?, egurast osoa zikundu, eguraldiak aldatu eta han, hor, hemen ikaragarrizko uriolak sortu eta dana desegiteko. Eta ez da hor amaitzen, jarraitzen dau satorrak. Zer dabilzue itsasoaz? Hori ere zeuok nahi dozuena egiteko ete da ba? Eta geheiago; orain nuklear gerra datorrela eta lurpean ere hasi zarie etxeak egiten. Zeuen etxeak egin eta gureak apurtu.

Zer uste dozue ba, goikook, gizona Izadiaren erregea dala? Ez dozue uste Izadi barruko beste bat gehiago dala?.



Txikipitik ixilik entzun dauz satorraren berbak. Badaki satorra zuzen dagoala eta egia dala, horregaitik ez dira hasarratu. Satorrak gozoki moduko batzuk dakarz jateko. Gero, bere etxea eraskuten deutso. Txikipitik, gauzak aldatzen ahaleginduko dala esaten deutso. Orain lagun handiak dira Txikipiti eta satorra. Batera eta bestera dabilz, lehenengo satorra, gero linternea eta Txikipiti hirugarren. Baina Txikipiti arduraz beterik dago, ha linternea zelan dabilen bakarrik eta esaten deutso satorrari: "Zuek zeuok be aurrerapen handiak daukazuez lurpean, guk hor goian linternea eskuan eroaten dogu".



Orduan linterneak esaten dau: "Zu, gizontxo, ni ez naz linterna bat gero! Ni ipurtargia naz. Hau da alkarri lagundu eta argi egitea inguruak zikindu barik. Batak besteari lagundu behar deutso".

Berandu ere bada eta Txikipitik kanpora urten nahi dau. Satorrak eta linterneak laguntzen deutesie. Satorrak ateraino bakarrik.

Kanpoan ilun dago eta ipurtargiak etxeraino laguntzen deutso. Etxe ondoan alkar agurtu eta bakoitza bere etxera doa.

Eskolan baino gehiago ikasi dau gaur Txikipitik. Lotsari ederra benetan!.

TXIKIPITI ESTU


Zapatu goiz baten Txikipitiren osabea urira doa. Hantxe dauka bere bulegoa. Bulego oso dotorea. Aurkiak be bigun-bigunak dira. Txikipiti inoiz ez da egon osabearen bulegoan eta hara jotea gura daukela esaten deutso bere osabeari.


Osabeari ez jako gustatzen bere bulegora inor eroaterik eta Txikipiti gitxiago. Badaki batera eta bestera ibiliko dana eta berak behar dauzan papelak nahaztu egingo dauzala.

Baina ekin eta ekin, azkenean lortzen dau osabeagaz joatea. Trenez doaz. Halako baten ikaragarritzko sustu bat hartzen dau. Zulo baltz handi eta luze baten sartu dira. Osabeak ez ikaratzeko esaten deutso, ha, trenaren zuloa dala eta mendi baten azpitik doazela.

Urra heldu diranean taxi bat hartu eta badoaz osabearen bulegorantz. Bulegoa hamargarren pisuan dago eta azpian, jostailu denda handi bat dago. Dendaria osabearen lagu handia da eta Txikipiti han iztea erabagi dau osabeak bere zereginak egin arte.

Oso pozik dago Txikipiti dendan. Dendaria kanpoko jendeari serbitzen dabilen artean, jostailurik jostailu dabil andurra dariola.






Baina Txikipitiren pozak ez dau luzaro iraun. Batetik bestera saltoka dabilela jostailu baten barrura jausi da eta ezin dau urten handik. Zarataka eta deika hasi arren inork ez dau ezer entzuten. Zarataka eta negarrez nekatu zanean loak hartu eban.

Halako baten Txikipiti lo dagoan jostailua erosten dau denda horretako bezeru batek eta badoa etxera Txikipiti barruan dala. Oraindik lo dago







baina etxera heldu eta hango umeak olgetan hasi diranean berehala itxartu da. Inork ikusi barik, ate ostetik mahaipean sartu da eta hantxe dago ixil-ixilik. Ez da ausartzen kanpõra urteten. Ez daki non dagoan.

Etxe horretako andreak goizean erosketa batzuk ere egin ditu. Euren artean oilasko bi erosi dauz. Bata bestea baino handituagoa da. Eta ez hori bakarrik, biak bizirik erosi dauz, gaur, bihar edo beste egunen baten jateko.

Etxekoandrea bazkaria prestatzen hasi da eta bere semei intautzen deutse: gaur zer bazkaldu gura dozue, ba?.





Hori da itauna ama, eratzun dabe mutilok. Badakizu zer gustatzen jakun ezta?. Ba horixe.

Orduan, esan ebak amak: goizean ekarri dodan txiki hori hil beharko dot. Ez da handia baina beste zerbait ere argetuko da.

Hau entzuten dauanean Txikipitik, zarata handi bat eginez mahaipetik urten eta badino: Eeeee...ez! Ni,eeee...ez! Nik ez dot ezer egiiii...in! Itzi niri etxera joateeee...en! Aiiii...i!

Zarata honeek entzuten dabezanean batera eta bestera begiratzen hasten dira etxekoak, nor edo zer ete dan zarataka dabilen hori.

Etxekoandreak bere esku artean hartzen dau Txikipiti, ez ikartzeko esaten deutso, baina Txikipitiren bihotza oraindik taupadaka dabil. Sinistu ezineko sustua hartu dau oraingoañ be Txikipitik.

TXIKIPITI ETA BASAURDEA.

Txikipiti sarritan joaten da basorantz. Hain da txikia..., uria baino gehiago gustatzen jako. Gainera abere zalëa ere bada. Danakaz konpontzen da ondo.

Oraingo honetan bere osabeagaz mendira joateko dago. Mendira bidean, gaztainadi bat dago eta zorrotxu bat ere hartu dabe, arratsaldean, etxerantzean bete-beterik ekarteko.

Dana dago prest, bokadiloak, ura, eskuetarako makila bana, txapela eta Txikipitiren mosukitarra txikia ere bai.


Baina osabearen etxean telefonoak jo dau. Izekoak hartu dau telefonoa eta norbaitek bulegotik deitzen deusala esaten deutso osabeari. Orain osabeak hartzen dau eta oso hasarre dabil berbetan. Azkenean telefonoa eskegi eta ezin daula joan mendira esaten deutso Txikipitiri.


Txikipiti horregaitik ez da hasarratzen. Bakarrik doa. Eguraldi oso ona egiten dau eta txistuka doa.

Etzetik urruntxu dago. Txorien txirri-pitioak entzunez joan eta joan, lupetz arteko harri gainetatik doa zein lohitu. Euria egin barri dago eta harri gaine baten labandu eta hara hor non jausten dan lupetz artera. Baina hori ez da txarrera, ezin dau urten saltsa haretatik. Ia samaraino heltzen jako saltsa zikina. Beherago ere ez doa baina urten ere ezin dau egin.

Luzarotxu dago lupetz artean burruka bizian. Eguzkiak urten dau. Bere beroaz lupetza sikatzen hasi da eta lupetz honek Txikipiti estutu egiten dau. Larriune gogorrean daukagu.

Estutasun honez gainera inguruan zarata berezi batzuk entzuten dauz. Zaratok apurka apurka hurreratzen doaz. Zer?. Basaurda txiki bat agertzen da, lupetz artera dator zorriak kentzera. Txikipiti ikeraz dago. Jan egingo ete dau pizti honek? Jan? Bai zera!. Bere musturraz golpetxu bat emon eta lupetz artetik ur potxingo batera botaten dau. Han apur bat beratu ondoren eguzkitara ateraten dau.






Lagun handiak egin dira Txikipiti eta basaurdea. Alkarrekin bazkaltzen dabe eta gero basaurdea lupetz artean lotan gelditzen da. Txikipitik ostera ondoan dagoan arbola batera igoten dau txori habi bat ikusten dau eta.

Ez da denpora handirik pasatu. Basaurdea lo dago eta Txkipiti hari begira arbola gaineretik. Halako baten ehiztari bat agertzen da eta basaurdea ikusten dau. Eskopetea hartu, kartutxoak ipini eta krask!, eskopetea itxi eta basaurdeari apuntatzen dago.

Eskopetearen zarateak basaurdea iratxartu egin dau eta begiak zabaldu dauzanean bere aurrean izugarrizko begi ilun, baltz bi ikusten dauz. Ezin dau ezer egin. Agortzen dagoan iturri batek botatzen dabezan tantakada batzuk bota ditu bere begietatik eta tiroa noiz helduko zain dago.





Halako baten, pau....un!
pauuu....un! tiro handi bi entzun dira.
Basurdea osorik jausi da luptz
artean.

Gerotxuagoan basurdeak burua
jasoten dau eta ehiztaria ikusten dau.
Ehiztaria barrakik ez, eskopetearen
puntan Txikipiti ere bai. Txikipitik,
ehiztariaren eskopeta gainera saltu
egin eta tiroak basurdea ez jotea
loru dau. Alkarren laguntzaz salbatu
dira biak.


KLAK!


TXIKIPITI IKASTEN.

Gaur Txikipitik egun oso txarra dauka. Ez da ezegaz konformatzen. Orain gauza bat, gero beste bat. Osabea aspertu egiten dau eta honek badinotso: "Antzinako kamineruaren antza daukazu".

Txikipitik, hau ez dau ulertzen baina badauka jakiteko gogo. Halako baten esaten deutso osabeari: zelangoa zan ba kamineru hori? "Ba, entzun ondo eta ikasi, behar izango dozu eta", esaten deutso osabeak.

Kamineru bat egunero joaten zan bere lanera, bide ertzak atontzen. Egund bat joan beste bat etorri eta egunero zeregin bardinean ebulan. Udea heldu zanean, eguzkiak gogor jotzen eban eta izerditan ebulan, nekatuta. Lanik egiteko gogorik ez eta bere artean esan eban: Nor izan leitekean eguzkia goitik behera joteko!.







Esan bakarrik ez, eguzki bihurtu zan. Pozik ebulan, inguru guztiak berotu eta erre beharrean. Laster amaitu jakon aginpidea. Laino handi bat ipini jakon aurrean eta ezin berotu berak nahi ebana.

Lainopean egoten ere aspertu egiten zan eta lainoa nor izan leitekean pentsatzen dau. Pentsatu eta bapatean laino bihurtu zan. Orain ere pozik dabil, eguzkiari argia kendu, kerizpea egin eta aidean batera eta bestera.

Halako baten haize indartsu batek urten eban eta zoratu beharrean erabilan gora, behera, ezkerretara, eskumatara, guztiz zorabiotu arte.





Aspertu zan, bai, laino izateaz be! Orain uste dau, laino baino haize izatea hobe dala. Haize izatea nahi dau eta lortu ere bai. Laino izateari itzi eta haize bihurtu zan.


“Hau da zorientasuna”!, inoan. “Batera eta bestera nabil eta ez naz nekatu be egiten. Lainoak neuk nahi dodan lekura daroadaz eta eguzkia ilundu be bai. Hauze izatea guztatzen jat, oraintxe naz benetan zorientsu».


Ez zan denpora handirik igaro, batera eta bestera ebilela, mendi handi bat aurkitu eban aurrean eta ezetakit ezin pasatu beste alderdira, mendiaren ostera. Behin eta barriro jo arren ezin eta ezin.

Orain mendia, bera baino indartsuagoa da eta mendi izan nahi dau. Ez dau haize izaterik gura. Zergaitik? Haizea baino mendia indartsuagoa dalako eta berak nahi eban indartsuena izatea.

Oraingoan be, haize izateari itzi eta haitzezko mendi handi bat izatea lortzen dau. Harrezkero haizerik gogorrenak be errez gelditzen ebazan.

Haizea gelditu ezkeru, lainoak ere ezin joan batera eta bestera eta honeek era berean eguzkia ilundu. Orain bai bazala indartsuena! Ez egoan bera lakorik.







Holan igaro ebazan egun batzuk. Gitxien uste ebanean....ha zan hartu eban mina! Bere orpo-orpoan izugarritzko min handi batek jo eban. Zer?.... Mendi horren barrenetik bide barri bat zabaldu behar eben. Autopista bat egin behar eben.

Mendi inguru guztia makinaz eta eskabadoraz bete zan mendiari zati handi bat kentzeko. Hasi ziran zatiak kendu eta kendu, mendiari ikaragarritzko minak eginez.

Halako baten begiratu eban beherantz nor ete ebulan bere inguruan halango minak egiteko. Begiratu eban eta....haxe izan zan berak gitxien uste ebana: Txapel gorridun gizon batzuk ebilzan inguruan. Nortzuk?....Bere kideak. Bere moduko kamineru batzuk haitza apurtzen.





“Eta orain zer egingo dot nik”?, inoan. “Barriro be kamineru izatea, onena izango dala uste dot. Bai, barriro be kamineru izatea nahi dot, lehen izan nazena izatea nahi dot”.

Eta gure kaminerua barriren barriz bere eguneroko lanera joan zan, hoberik ez eban aurkitu eta.



TXIKIPITIREN ITAUNAK.


Txikipitiri gauzak jaitea gustatzen jako eta horretarako itaundu egin behar. Izekoari baino osabeari gehiago itauntzen deutso. Osabeak batera eta bestera eroaten dau eta mundu gehiago be badauka. Orain osabearen lagun handia da. Itaundu be, sarritan erantzunik bako itaunak egiten ditu gure Txikipitik. Oraingoan, mundua zelan sortu zan jakitea gogoratu jako.

Txikipitirentzat ez dau balio ez dakit esateak. Zelan edo halan esan egin behar jako, bestela....goiak eta beheak jotzen hasiko da lortu arte. Hasi jako ba, osabea zer edo ha esaten:

Orain dala urte asko eta asko, batek badaki zenbat!, gure lurra zeruan zehar egoan hautsaz osotu zan. Haizeak, haize indartsu batek, hautsa batuaz sortu eban eta gero bere barruan hartu. Hainbeste hauts batzea ez zan izan erreza eta hainbat izerdi bota eban. Izerdi hori ura dogu. Hor ba haizearen lanaren ondorioa!

Izerdi honek mundu osoa ingaratu eban, ez zan lurrik ikusten inondik. Geure gorputzaren antzekoa zan antzina lurra: Gure gaineko azala, haizea; gure haragia ura eta gure hazurrak, lurra.







Norentzat lan guzti hau? Ez zan denpora handirik igaró; izerdi barruan lehenengo bizia sortu zan. Goitik haizeak zaintzen ebazan eta behetik lurraren beroak. Geroago eta gehiago agertu ziran. Era askotako bizidunak. Neurri guztietako bizidunak. Oso pozik egoan Haizea bere lanaren ondorioak ikusirik. Baina....zer?.

Gaur gertatzen dana, orduxean gertatu zan lehenengoz. Uretako bizidunak hasarratzen hasi ziran. Alkar ikusi ezinik. Alkar joka eta jaten be bai. Beti irauten eben handienak, txikienak beti hil, indartsuena beti garaile.

Lurrak, konpondu-ezin hau ikusi ebanean, erdi hasarre, zutundu egin zan eta bere besoak jaso. Orduan bere itxura biribila aldatu egin eban eta gorputz zati bat uretatik kanpo eukitea erabagi eban. Hau egin ebanean, uretan konforme ez egoanak kanpora urten eban.





Harrezkero, batzuk uretan eta beste batzuk kanpoan bizi dira. Lurra pozik dago ondo konpontzen diralako.

Baina bake ostean gerra dator eta barriro hasarretzen dira. Oraingoan ez dira uretan bizi diranak, kanpokoak baino.


Lurrak lehen egin ditu bakeak eta orain Haizea sartzen da nahazte hori konpontzeko. Orduxean sortu ziran hegaztiak.

Lurrean pozik ez ebilena, Haizeak beragaz eroan eban. Luzaro eta bakean emon ebezan euren egunak haizetakoak, haizetan; uretakoak, uretan; eta lur gainekoak lur gainean.



Baina ez zan lortu betiko bakerik. Burrakak, aldika etorri dira lurrekoen artean. Batzuk, uretan eta kanpoan, bietan nahi eben. Beste batzuk oster, lurrean eta haizetan. Hau nahikoa ez bada, beste batzuk lurpean.

Eta hau ez da ezer. Oraindik ez zan sortu lurrean hanka bikorik. Hegaztiak bakarrik ziran hanka bikoak.



TXIKIPITI ETA IÑAUTERIAK

Iñauteri eguna da. Txikipiti pozik dago, osabeak jantzi berezi bat ekarri deutso gaurko. Txita jantzita ibiliko da egun osoan. Txikipiti txikia da eta horregaitik jantzia be txita batena da.

Bere lagunak be abere jantzi dira. Bat azeri, beste bat oilar, txakur ahuntz, zaldi....,herri guztia aberez bete da. Bakoitzak bere zarata eginez, herritar guztiak kalera edo etxeetako balkoietara urten dabe. Ikustekoa da benetan!

Txikipiti txikia da baina osabeak hegalper baten hankak be erosi deutzaz eta besteak baino handiagoa da. Harrotuta dabil Txikipiti bere lagunak baino dotoreago ikusten dalako.

Arratsaldean lehiaketa bat egingo da herrian. Jantzirik dotoreena daukanak sari on bat eroango dau. Hainbat sari dago eta onak dira, baina lehenengoarentzat sari berezi bat dago.

Herriko alkatea, abadea, maisua eta beste lau guraso dira epai-mahaikoak. Herritarren txaloak be kontuan izango dira.

Hasi da lehiaketa eta abere guztiak, banan-banan, epai-mahaikoen aurretik pasatu behar dabe. Hango txalo-hotsak ez dauka azkenik, batez be Txikipiti eta oilar jantzita dagoana pasatu diranean.

Ordua da nork irabazi dauan jakiteko. Baina puntu bardinak atera dabez "txiteak" eta "oilarrak". Barrero be epai-mahaikoen aurretik pasatu behar dabe, nor izango dan irabazle jakiteko. Hau egin baino lehen beste sarituei euren sariak banatzen deutzieez.




Sariak banatzen dabezan bitartean, Txikipitik zerbait jakin dau:
Hegalperraren hankak eroan dauzalako ez dala izan bera irabazle.
Bigarrenez pasatzen danean epai-mahaikoen aurretik hanka barik doa.

Orduan bai txalo-hotsa! Argi dago nor dan irabazlea. Txikia da Txikipiti baina orain hasi egin da.


Amaitu da eguna. Txikipiti etxera doa. Oso pozik joan be! Baina, pozok laster amaituko jakoz. Etxerantzean, bakarrik doa eta txita jantzia kendu barik. Bere gainean miru handi bat dabil hegaz. Ez daki zer egin, miruak erreta legez dago. Halako baten mirua goitik behera dator eta....saaaast! miruak buztanaz jotzen dau.


Mirua gose da eta txitea harrapatu gura dau jateko. Txiteak ezin dau arin egin eta mirua barriro dator. Oraingoan bai, oraingoan harrapatuko dau.

Txikipiti bizkor dabil soineko jantzia kentzen.
Askatu ditu ugel guztiak baina ezin kendu gainetik,
nor bait behar dau hori egiteko.



Txikipiti bizkor dabil soineko jantzia kentzen. Askatu ditu ugel guztiak baina ezin kendu gainerik, norbait behar dau hori egiteko.





Badator barriro be mirua bere gainera eta barriro be saaaast! Eta badaroa gure "txitatxoa". Heldu da mirua habira. Bere moko gogorraz golpe bat emoten deutso. Ez dauka txita gaixoaren errukirik. Burua kendu deutso bigarren golpeaz. Erpei batera eta bestera eginik lepo-narrua be askatu deutso, baina zer.....? Txita harek ez dauka mamirik, ez dauka okelarik jateko, azal eta narru hutsa, besterik ez da.



TXIKIPITI ASKATZAILE.

Egun ona egiten dauanean, Txikipiti etxetik kanpo ibiltzen da. Mendirik mendi, solorik solo edo basorik baso. Txori txikiak hainbat gustatzen jakoz, batez ere kardantxiloak. Honeen abesti edo txirripitioak entzuten dauzanean eurei adi egoten da luzaroan. Oraingoan ez dauka zori txarrez horrelakorik entzuterik. Mendirantz doa eta gizon bi aurkitzen ditu solo baten eta ostenduta. Eskuetan txori txiki bat dauka batek eta zerbait kentzen deutso hegoetatik.


Txikipiti luzaroan dago begira zertan dabilen jakiteko. Txoria garbitu eta kaiola beten sartzen dabe.

Gizon honeek txoriak harrapatzen dabilz txori lehiaketetara eroateko. Bat, bi, hiru,...hainbat txori jausi da gizon bien eskuetan. Askatasun osoa kendu deutsiee. Eta ez hori bakarrik, kardantxiloak ez badira barriro bota, baina hegoak garbitu barik eta sasi baztarrean hiltzen dira pegamentoz hondatuta.

Txori kantarien lehiaketak leku askotan ospatzen dira, batez be udabarrian eta udan. Txoriak, euren abestiz alaitzen gaitue, baina, Txikipitiren kezka hauxe da: Bardinak ete dira kanpoko eta kaiola barruko txorien abestiak?. Kaiola barruko abestiak, negarrak ete dira?.



TXORI KANT



Dana dala, penagarria da Txikipitirentzat txorriak kaiola barruan ikustea eta zerbait egin nahi dau honeek askatzeko.

Egun baten bere osabeari esaten deutso txori abeslarien lehiaketa bat ikusi nahi daua eta eroateko behin behintzat.

heldu da egun hori eta badoaz osabea eta biak. Lehiaketa arratsaldean ospatuko da baina txorriak goizetik egon behar dabe lehiaketa ospatuko dan lekuan.


Hogeita zortzi txori aurkeztu dabez. Txori bakoitza kaiola baten dago. Kaiolak, bata bestearen ondoan, gainean zenbaki batez. Burdinezko esparru baten barruan dagoz kaiola guztiak eta gainera esparru hau oihal handi batez estalduta dago lehiaketa hasi arte.

Burdinezko esparrura ezin dau inork sartu, baina Txikipiti errez sartu da, inork ikusi barik gainera. Bakarrik dago barruan. Kaiola bakoitzeko txaramela kendu eta ate bakoitzetik hari bat batzen dau.

Lehiaketarako ordua heldu da. Arduradunak ohar batzuk emoten ditu hasi baino lehen.

Oharrak amaituaz batera, esparruko oihal nagusia kentzen dabe. Danak dagoz begira eta arduraz, batez ere txori aurkezleak.


Oihala kendu dabenean, harri bat jauten da esparru barruan. Harri honek 28 hari daukaz lotuta eta karioletako atek zabaltzen dira. Txori guztiak hegaz doaz, ikusleen aurpegi luzeak ikusirik.



Karioletako atek zabaltzen direnean, ate bakoitzak hizki bak dauka barruan eta danen arte haxe dinoe:

“GUK BE GEURE ASKATASUNA GURA DOGU”

TXIKIPITI ETA TXIRRINGEA




Dendaria eta gizon bat berbetan dagoz denda aurean. Gizonak dendariari urira doala dinotso eta kamioneta barruan sartzen da.

Txikipitik hau entzuten dauanean txirringa gainera saltu egin eta txirringolaren barrukaldean sartzen da urira joateko.

Kamionetea, raun....raun....hasi da ikaraka eta apurka apurka mogiduten. Aurreko txirringa biak batera, lehenengo ezkerretara eta gero eskumatara egin eta badoaz.

Txikipiti hasi da txirringeaz batera bueltaka, geroago eta arinago doa. Txirringolari zelan edo halan deusala heldu da lehenengo semaforoa.

“Ordua izan da”, dino Txikipitik. “Arnasa apur bat hartu beharko dot”. Ez dagoz luzaro semaforoan. Minutu erdi egin eta barriro be aurrera. Halako baten ur potxingo baten sartu da txirringea eta jakina, Txikipiti hondatu egiten da. Soineko guztiak busti-busti eginda daukaz eta kamionetearen abiadureak sortzen dauan haizeak hotzak hilik eta ikaraka ipintzen dau gure ibiltaria.



Damutu jako bai, eta ez gitxi Txikipitiri ibilaldi hori egitea. Beste semaforo batera noiz helduko begira dago, begiak apur bat garbizteko, begietako ur zikina kentzeko.

Hori pentsaten dagoala ikaragarritzko zarata bat entzuten dau. Ia ia gortu egiten da. Arinegi joan da kamionetea eta otoz otoko musturrekoa hartu dau gidariak galgeari emon deutsanean.

Heldu dira urira. Baina Txikipitik ezin dau urten txirringatik. Zelan urtengo dau ba hondatuta eta hotzak hilik dago ta!


Txirringeak daukan epeltasunean dago geldi-geldi. Etxera heltzea gura dau baina gizon harek erosketak egin arte han egon behar.

Halako baten abots bat entzuten dau. Batera begiratu eta bestera begiratu eta ez dau inor ikusten. Txirringearen abotsa da.

“Zer? Gustatu jatzu ibilaldi hau, ala?”, esaten deutso txirringeak. “Ez. Jakin baneu ez nintzan etorriko”, erantzuten deutso Txikipitik.

Txirringeak: Ba, hauxe da nire eta nire lagunen eguneroko lana. Bero egiten dauanean eta hotz egiten dauanean bardin.





Txikipitik: Bai, baina zuek holantxe ibilteko eginda zagoze ezta?.

Txirringeak: Bai, eta oso gustora ibiltzen gara baina ez beti. Guk be zuen moduan ibiltea gura izaten dogu eta hori nekez lortzen dogu, ia beti gabiliz behar ez dan moduan.

Txikipitik: Ez dot aituten zer esan gura deustazun. Zuek, zelan ibiliko zarie ba, gure moduan?.

Txirringeak: Bai, mutil! Gu bideetan ibilteko eginda gagoz, baina gitxitan ibiltzen gara ondo. Batzuetan, haizea falta jakunean min handia sentitzen dogu. Beste batzuetan, haizerik nahiko daukagunean pisu gehiegi ipinten deusku gainean eta aur-goretan bero-bero egiten gara, noiz lehertuko. Eta ez hori bakarrik.... Zenbat bide txar igaro behar izaten dogun! Zenbat zulo bideetan! Eta zulo horreetan egiten digutun ebagiak gure azaletan, hil zorian izten gaitue sarritan. Zer egingo zeunkie txirringarik ez balego munduan? Eta azkenean ezertarako balio ez dogunean baztarrera bota edo erre egiten gaituzue. Guk gure eginbeharrak ondo beteten digutu baina zuek gure eskubiderik jagoten dozue? Ahalegitzen zarie, gure bidez lortzen dozuen diruaz gure bideak konpontzen edo minutu bat galtzen gure barruko haizea nahikoa dan ala ez jakiteko? Zergaritik botaten deuskue behar dan baino pisu gehiago gainera?.

Txikipiti : lotsatuta dago txirringearen egiak entzuten, egi tristekak baina benetatoak.

Txikipitik, txirringen eskubideak zaintzeko alkarte bat sortuko dauala esaten deutso zin eginez.



TXIKIPITI UTXABALDAN.


Txikipitiren izeko-osabak premiazko joan-etorri bat egin behar dabe. Ez daukie astirik Txikipiti eroateko eta eurekaz be ezin dabe eroan. Bakarrik izten dabe etxean, baina osabeak esaten deutso ondo edo zuzen badabil egun osoan, gabaz, etxera datozenean nahi dauana emongo deutsal.


Txikipitik baietz esaten deutso. Bazkaria mahai gainean izteko eta joateko ardura barik.

Izeko-orsabak urten dabe etxetik. Txikipiti bakarrik dago. Egun osoa bere kontura. Zer egin!.

Osabeak etxe-azpian gela bat dauka. Gela hau beti egoten da itxita eta Txikipitik aspaldian jakin gura dau zer dagoen han barruan.

Gelako atea giltzaz itxita dago baina errez lortzen dau atea zabaltzea. Osabearen makilea daroa ate ondoraino eta honen lakatzetatik gora igoten dau.





zulotuta daukadaz eta laster barrua
be zulotuko deust sitsak, hauts bihurtuko nau.

Oraintsura arte pozik irakurten izan ninduan etxe honetako ugazaba zaharrak baina orain hemen nauka baztertuta. Orain arte ni eta nire antzekoak izan gara hizkuntza zaindu dogunak, geure barruan daroaguzan ipuin, olerki eta bertsoz. Zure osabearen aiten aituen hizkuntza edo berbetea daroat neugaz. Baina orain irrati txiki honen bitartez jakin izan dot beste batzuk urten dabela kalera, barriagoak, gaur egunekoak ei dira, bai. Nire ondoko irrati gaixo hau ipinten dodanean entzuten dodaz, bai. Eta ez dodaz lar aituten, ez dakit irrati hau txarto dabilen ala ez, baina entzuten dodanean, barrua hasarratu egiten jat. Irratian entzuten dauna eta barruan daukadana, ez dirala bardinak dinost barruak. Horregaitik sarritan irrati hau isituteko gogorik be ez dot eukiten. Zabaldu eizuz nire orri batzuk eta irakurri, ikusiko dozu zelangoa nazan.

Txikipiti, orri batzuk zabaldu eta ikaratuta dago. Zelango ipuin politak!
Zelango jatortasuna! Zelango doinua!

Gauean, izeko-osabak etxeratu dira eta Txikipiti oso ondo portatu dalako osabeak bere agindua beteteko esaten deutso: “Zer gura dozu saritzat, ba?”.

Txikipitik: Utxabaldako liburua atera behar dozu handik eta soineko barri bat egin. Narruzko soineko dotore bat. Eta gero bere antzeko eredu pilo bat argitaratu eta zabaldu, dirua badaukazu eta.

TXIKIPITI ZINEAN.

Txikipitiren osabeak gaur jai dauka eta zinera joatea erabagi dau Txikipitigaz. Txikipiti, jakina, oso pozik doa. Uriko sarreran poste batetik eskegita, "URI AGUR" irakurtzen dau eta bere osabeari esaten deutso: Osabea, nora goaz ba? Hor "URI AGUR" irakurri dot, uritik kanpora urten dogu, ala?. Osabeak: Ez, horrek ez dau hori esan gura, hor, "URIAK AGURTZEN ZAITU" ipini behar leuke. Txikipitik: A! Zenbat dakian hemengo jendeak!.


Aurreratxuagoan beste zerbait irakurtzen dau Txikipitik. Bidea konpontzen edo dabilz eta, "KONTU" irakurtzen dau. Zer esan gura dau honek osabea?, esaten deutso Txikipitik.

Osabeak: Horrek, "KONTUZ" esan gura dau, kontuz ibilteko, astiro joateko bidea ez dagoala ondo eta. Beharbada hori ipini ebanari pinturea amaitu egingo jakon edo orduak jo eta etxera joango zan amaitzeko astirik barik.

Txikipitik: A! Ze alperra dan hemengo jendea!.

Heldu dira zinera eta sartu be bai. "AITA ZALDI ETA AMA ASTOAREN NEGARRAK" da pelikulea.

Ezkondu eta laster heltzen jake lehenengo ezbeharra aita zaldi eta ama astoari. Ezkontzako lehenengo umea mando bat da. Ez dauka aitaren antzik, ia-ia ama berbera da. Indartsua da. Gurasoak konturatu baino lehen kalte handiak egiten ditu herrian, aitaren eta amaren herrian, batez be aitarenean. Inguruko zaldikumatxoak eta astakumatxoak bere menpean daukaz. Ostikaria da, gainera, landa guztiak lorrindu eta desegindu egiten ditu.



Begaraz inguruan bizi diranak hiltea gura dabe, baina zelan! Geroago eta indartsuagoa da eta ingurune handiagoa menperatzen dau. Gainera herritarren semea be bada!

Beste alde batetik, hau lortu daben albaiteru jakintsuak oso pozik dabilz batera eta bestera euren ikastaroak emoten eta euren esperientziak azaltzen produkto barri hau gehiago zabaldu daiten.

Baina albaiteru jakintsu honeek ez deutesee ezer esan gurasoei, aita zaldi eta ama astoari. Aita zaldiak eta ama astoak ez dakie euren seme mandotzarrak ez dauala oinordekorik izango. Hori ez dakie eta inor ez da ardaratu hori esaten. Mingarria benetan gurasoentzat!

Apurka apurka, mandokumez eta mandotzarrez bete da inguru guztia. Zaldiak eta astoak zahartzen doaz eta eskasten be bai. Agur zaldizkuntza eta astizkuntza! Mandizkuntza nagusituko ete da?.

Zaldi eta astoen arteko ezkontzak gero eta ugariago ospatzen dira. Asko pozik eta pozik euren mandokumak uritarragoak diralako eta jakintsuagoak dirala uste dabelako. Ez dabe mandizkuntza ulertzen ez egiten baina pozik mandotxuak hori erabiltzen dabelako.




Beste batzuk ostera ez dagoz konforme eta alkarregaz bizi behar, hareek be etxeakoak dira eta.

Albaiteru batzuk hasi dira konturatzen zerbait ez doala ondo. Orain konturatzen dira mando artean ez dala inor jaioten, mandoak ezin dauala umerik izan eta inguru guztia mandoz beteten doala.

Munduko albaiterurik onenak alkartu dira. Ikaragarritzko burruka eta eztabaidak daukiez euren artean. Batzuk dagoan moduan izteko prest dagoz, beste batzuk ostera ezkontza horreek galazo egin behar dirala zaldi eta astoen etorkizuna ez galtzeko.

Hainbat denpora igaro eta gero, zaldiak hasi dira konturatzen albaiteru barri honeek zuzen dagolaza eta honeen bideari jarraitzea dala onena.

Pelikulea amaitu da eta Txikipiti eta bere osabea etxerantz datoz. Txikipiti beti legez albora adi dator bide guztian. Halako baten bere osabeari esaten deutso: poste horretan "URI AGURTZEN ZAITUZTE" irakurri dot, zer esan gura dau horrek?. Osabeak: Horrek, pelikulan azkenengo agertu diran albaiteruak behar ditugula hemen be.



TXIKIPITI MEATZARI.

Txikipiti, aspaldiko lagun bat ikusi behar dauala eta, egun baten, epertargi baten laguntzaz lurpera doa satorrak ikusten. Lurpean, gora eta behera dabil, aurrera eta atzera. Batera edo bestera joaten diranean, satorra joaten da aurretik, gero epertagia eta Txikipiti azkenengo.

Halako baten epertargiaren argia hasi egiten da. Sator-zuloa dana argitan dago, inguru guztia harri argitsuz beteta dago eta danak egiten dabe argi.

Txikipiti, hau ikusten dauanean, ikaratuta gelditzen da. Harri txiki bat eskuan hartu eta, ia etxera eroan ahal dauan esaten deutso satorrari.

Satorrak, baietz esaten deutso, eurak ez dabela harririk behar eta hartzeko gura dauan beste.

Hurrengo egunean Txikipitiren izekoa erropak garbitzen hasten da oso lohi dagoz eta. Harri txikitxu bat aurkitu dau Txikipitiren boltsan.

Izekoak ikusi dauanean osabeari deitu eta esaten deutso: "Ikusten dozu hau? Urre gorriaren antza dauka, ezta?".



Osabeak: Bai, haxe da. Non dago Txikipiti? Deitu eiozu eta datorrela hona!

Txikipiti arin bai arin dator osabeagana eta ia zer behar dauan itaundu.


Osabeak: Non aurkitu dozu hau?

Txikipitik: Atzo sator bat ikusten joan nintzan eta berak esan eustan hartzeko, oraindino gehiago itzi neban han barruan.

Osabeak: Gehiago dinozu? Badakizu zer dan hau?

Txikipitik: Ba, niri horixe esan eustan, eurak ez dabela behar eta ekarteko dana gura badot.

Hurrengo egunean Txikipiti berraro doa eta egun osoan batu eta batu dabil satorren laguntzaz. Gero gabaz kanpora ateratzen dabe inork ikusi ez egiteko. Kanpoan osabea dauka itxaroten eta urre gorritzko harritsuok hartzen.



Txikipitiren osabea eta baita bere etxeakoak be aberastu egin dira. Orain ez daukie arazorik Txikipitiren etxeakoak.

Barri hau herri osoan zabaldu da eta jendea arduraz dago, gehiago ete dagoan itaunduz. Hau jazo eta egun gitxi barru herri haretako soloak guztiz arakatuta eta aitzurtuta agertzen dira. Inork ez dau ezer aurkitu.


Txikipiti eta bere izeko-osabak gurasoen herrira doaz. Urre gorri asko lortu dabe Txikipitiri eskerrak.

Herritarrak osterera geroago eta zulo handiagoa egiten dabilz. Herri guztia aidatu dabe eta ikaragarritzko zulo bat egin.

Zuloa, handia, ezinbestekoa da. Herritar guztiak barruan dagoz, umeak, nagusiak, eta danak dabilz aberaztuteko asmotan.

Halako baten ume txiki batek urrezko harri txikitxu bat aurkitzen dau.





Danak poztuten dira, zuloak egin eta zuloak egin dabilz. Zenbat eta beherago, sakonago, urre gorri gehiago.

Oso pozik dabilz herritarrak .

Hainbat pisu atera dabez lurpean. Lurpe osoa zulututa dago, ez dakie norantz egin gehiago aurkitzeko. Kanpora urteteko erabagia hartu dabe, urre gorri asko daukie eta.

Baina....Zer? Orain ezin dabe kanpora urten. Zulo handiegia egin dabe. Handiegia bakarrik ez, atera daben lurraren pisuak inguru guztia hondatu egin dau.

Herritar guztiak lurpean gelditu dira. Izan be, zekenkeria ez da laguntzaile ona!.



TXIKIPITI ETA BERE ANAIA ZAHARRA.

Txikipiti ez da handia, baina bere ingurukoei ez deutse gehiago izaten izten.


Udabarria be heldu da Txikipiti bizi dan herrira eta gazteen artean zeozer egin behar. Urtero egiten da eta aurten be, barakilo lasterketa bat egitea gura dabe. Lasterketa hau herriko jaietako egitarau barruan egin gura dabe antolatzaileak.


Parte hartzaileak aspaldian dabilz euren ekinaldia gertatzen eta barakilorik oneak aukeratzen.

Txikipitiren anaia be aurkezten da. Barakilo oso trebe bi daukaz baina maiatzaren azken egunetan ikaragarritzko beroak egiten ditu eta ardaratuta dabil lasterketa dala eta.

Txikipitiren anaia buztinlaria da eta zeozer asmatu gura dau lasterketa irabazteko.

Eguzkiak gogor jotzen dau. Lasterketak hasi behar dau eta hainbat diru jokutzen da. Irabazlearentzat be diru asko dago. Lasterketaren hasieran, barakiloak egin behar daben bidea, baten bakarrik bustiko dabe, gero ahal dauanak jarraitu eta ezin dauanak ito egin behar edo ito baino lehen lasterketatik aldendu egin behar beste egun baterako.






Hogei barakilo dagoz urtetako prest. Ezkerreko lehenengoa Txikipitiren anaiarena da. Jendea ez dago barakilo honen alde. Badagoz beste batzuk oso ospetsuak diranak eta jakina, jendea haren alde dago.


Hasi da lasterketa. Hamarra eta hamalaua aurretik doaz. Txikipitirena "bata" da eta nahiko atzetik doa. Noizean behin aurrerapen handiak egiten ditu baina gero guztiz atzeratzen da.

Hango txalo-hotsa eta zaratak sinistu ez egitekoak dira, gero!.

Hamarra eta hamalaua dira jendearen begiko. Txikipitiren anaiaren barakiloak, noizean behin atzerantz egiten dau. Anaia oso hasarre dabil zarakata baina alperrik. Hartu be, biderik sikuena hartzen dau, gero!, esaten dau anaia zaharrak.

Lasterketa aurrera doa eta, geroago eta gitxiago gelditzen da helmugara heltzeko.





Halako baten, Txikipitiren anaiaren barakiloa aurreratzen hasi da eta noiz harrapatuko dabil hamarra eta hamalaua. Lehenengo barakilo honeek oso nekatuta dagoz eta oso astiro doaz. “Bata” ostera bere bide okerrak alde batera itzirik aurreak hartzen hasi da. Hasi bakarrik ez, helmugara lehenengo heltzen da.

Ikusle guztiak ikaratura eta sinistu ezinik dagoz. Guzurra badirudi be, Txikipitiren anaiaren barakiloak irabazi dau. Helmugara heldu danean, arin bai arin daroa barakiloa anaia zaharrak nonora, inork ikusi ez egiteko.

Zergatik irabazi ete dau Txikipitiren anaiaren barakiloak?.

TXIKIPITI ETA PITI.



Txikipiti eta bere gurasoak aberastu diranean beste herri batera joan dira hobeto biziteko.

Euren gustuko herria aurkitu orduko hainbat herri ikusi dabez.

Herri batetik bestera joaten dira Txikipitiri ez jakoz gustatzen eta.

Herri batera heldu dira eta asko gustatzen jake, batez be Txikipitiri. Bere antzeko laguntxo bat aurkitu dau bertan eta alkarregaz oso ondo konpontzen dira.

Biak dira txiki-txikiak eta gainera alkarren antza be badaukie. Txikipitiren lagunaren izena Piti da.

Herriko jendeak batera ikusten ez dituanen ezagatu be ez ditu egiten. Horregaitik herritarrak zoratuta ibiltzen dira biei batera zeozer egitea gogoratzen jakenean.

Eskolako umeen arteko lasterketa bat dago herrian. Lasterketa hau herri batetik bestera da. Bitartean mendi bat dago eta haxe, batetik bestera igon eta jatsi behar. Lasterketa amaitu ondoren sari banatzea.

Hasi da lasterketa eta Txikipitik irabazten dau. Ikusten dagoen jendeak ez dau onartzen Txikipiti irabazletzat. Batzuk esaten dabe Txikipiti helmuga ondoan ostenduta egon dala eta Piti izan dala eurekaz betera urten dauana.

Barrero ospatu behar da lasterketa eta jende guztia zain dago ia Txikipiti eta Piti han dagozan ala ez. Oraingoan biak dagoz han. Urten dabe lasterkari guztiak. Txikipiti eta bere laguna ikusi be ez dabez egiten. Hain dira Txikiak! Baina, oraingoan be Txikipiti irabazle. Jendea barrero be protestaka dabil. Ezin dabe onartu hain txiki batek irabaztea eta eskolako lasterkaririk onenak ez dagoz conforme, zelango edo halango tranparen bat egon dala han dinoe.

Hirugarrenez ospatzea pentsatu dabe lasterketa hori eta egin be bai. Oraingoan Txikipiti bakarrik doa. Pitiri ez deusie izten parterik hartzen. Hau, beste azkoren moduan urteeran dago lasterkariok ikusten eta Txikipiti animatzen. Oraingoan beren beregi ipini dabez ehiztari batzuk bidean, txoririk egertzen bada zeruan tiroz hiltzeko. Herritarrak uste dabe lehengoan txoriren baten gainean joan eta irabazi daua.



Urten dabe lasterkariak. Piti arduraz dago oraingoan Txikipiti txarto ibiliko dalako. Herriko jandeak neurri handiak hartu dauz eta gaitz ipini deustie irabazteko. Noizean behin tiro batzuk entzuten dira inguruko txori eta abereak uxatuteko.

Lasterkariak atzera begiratzen dabe noizean behin, ia nor datorren atzetik jakiteko. Txikipiti hain txikia danez, inork ikusi be ez dau egiten eta inork ez daki aurretik ala atzetik dabilen.



Helmugan jendea zain dago zer gertatuko ete dan oraingoan. Gehienak heldu dira mendi tontorrera eta orain behera eta behera besterik ez daukie.

Hiru mutil ikusten dira helmugatik, aurretik datozenak dira. Helmugara heldu baino lehenago luban zabal bat dago eta handik igaro behar dabe lasterkariak. Handik pasatzen diranean ez dira ikusten helmugatik.

Txikipiti luban horretan dago. Zertan? Ba....beste lasterkariak tontorrera heldu eta helmugako jendea zarakata hasten danean, handik urten eta lahenengo sartzeko helmugan.

Eta izan ere holantxe izan da. Txikipiti irabazle hirugarrenez be.

Sariak hartu ondoren Txikipitik eta Pitik alkarregaz ospatzen dabe.

Pitik ez daki zelan konpondu dan eta badinotso

Txikipitiri: Zelan konpondu zara ba oraingoan ni barik?.

Errez, erantzun eutsan Txikipitik. Oraindino zuri ez deusut esan baina, lurpean be lagunak daukadaz.




TXIKIPITI BARRI BILA.

Txikipiti eta Piti sarritan joaten dira alkarregaz eguna emoten eta beti aurkitzen dabe barriren bat. Horma zaharretako zuloetako sugelandarakaz olgetan dabe eta honeekaz ez dira nekatzen. Tximinoak arboletan ibiltzen diran moduan erabiltzen dabez lagun biak sugelandarak, euren buztan puntetan eskegita. Zenbat aldiz igon ete dabez eleizako kanpa-torrera!.

Gaur ur-zulo sakon baten inguruan dabilz olgetan. Ur-zulo hori antzinakoa da, ez dago urik barruan baina oso sakona da. Ur-zuloaren horma gainean taket handi bat dago eta bertan txirrintola bat, barrutik soka bat dingilizka. Soka punta baten kako bat dauka, ura aterateko zan eta.

Olgetan dabilzala gizon bat hurreratu jake. Gizona oso hasarre dago han dagozalako eta etxera joateko esaten deutse, bestela barrura botako dauzala.

Hau entzun dabenean arineketan joan dira etxera eta dana kontatu dabe etxean. Etxekoak kontuz ibilteko gizon horregaz esaten deutesie, eta antzinako zaharrak esaten ebela zulo horretara dirua bota ezkerro eta sokeari tiratu, bota dozun lako bi jasoten ei dala.



Hau entzuten dabenean asko poztuten dira Txikipiti eta Piti. Gaba horretan, Piti bere aitaren banku-etxera doa eta dirua ostuten deutso bankutik. Zertarako....? Pitik



dirua ostuten dauan artean, Txikipiti, lehengo gizonaren etxera doa, leihora igon et esaten deutso: "Joan zaitetz bihar dirutan ur-zulora, gura dozun beste lortuko dozu eta".

Hurrengo gauean ur-zulo haretara doaz, baina ez dagoz olgetan kanpoan, sator-zulo batetik, zuloaren barreneraino heldu dira epertargi baten argiari esker. Laurak dagoz barruan: satorra, epertargia, Txikipiti eta Piti.

Atzoko gizonaren zain dagoz. Zuloa oso sakona da eta ez dabe goiko zaratik entzuten. Luzaro dagoz itxaroten eta aspertuta kanpora urtetako dagozala.... tin-tin-tinnnn...., zarata bat entzuten dabe.

Zarataren ostean, kriiii, kriiii....sokea beherantz. Heldu jake sokea eurak dagozan ondoraino. Epertargia hurreratu da argia egiteko eta pezeta bat ikusten dabe zelaian. Orduan arin baine arinago pezeta bi eskegiten dabez sokan eta handik lasterrera sokea gorantz doa.

Barriro be, eta oraingoan pezeta biren zaratea entzuten dabe. Arin baten, papelezko lau pezeta ipinten dabez kakoan eta honeek be gora doaz.

Goiko gizona oso pozik dago. Bere aspaldiko amesa egi bihurtu dalako. Oraingoan diruz bete-bete egingo da eta ez dau gehiago lanik egingo. Saku handi bat dauka ondoan zabalik diruaz beteteko. Dirua bota eta dirua jaso dabil.





Behean dagozanak oster, diru moltzoak egin eta egin. Txikipitik eta Pitik, mileko eta bost mila pezetakoak, izerak balira legez hartu eta ipinten dabez moltzoan, gero satorrak lotu eta kakoan ipini.

Goiko gizonak diru asko eroan dau zulo haretara, eroan dauan lako bi daukaz orain. Aspertu egin da, dirua bota ta dirua jaso, dabilen moduan, eta diru txikiak edo zatika bota beharrean saku osoa botaten dau.

Zelango ikarea hartu daben behekoak, eurak bakarrik dakie, ha daunbadea entzun dabenean!.

Sakua behera jausi danean apurtu egin da eta diru guztiak han gelditu. Orduan satorrak, kako puntea horma zulo baten sartzen dau. Goiko gizona barriz ikaragarritzko indarrak egiten dirua aterateko.





Orain arte dana izan da diru zaratea baina orain gizonaren negarra besterik ez da entzuten.

Baina halako baten, badator sokea gorantza. Pisu handia dauka. Ozta ozta dakar gorantza. “Barriro ez dot botako. Oraingo jaso–aldian datorrena hartu eta etxera joango naz”, dino goiko gizonak.


Ekin eta ekin, ekina gogorra da ta ,loritu dau gora jasotea. Hasi da sakua zabalitzen, oso ilun dago gaba da eta. Alde batetik heldu zein bestetik heldu, ezin zabaldu sakua. Harri handi bat, ez da besterik Txikipitik eta Pitik ipini deutsiena, satorraren eta epertargiaren laguntzaz, gizon diru–zale, zeken hari.

Herri haretan ez da jakin gizon haren barririk harrezkero. Txikipitik eta Pitik ia gau osoa emon dabe Pitiren aitaren diruak barriro banku–etxera eroaten.

Beste dirua euren lagunak
zaindu eta euri jaten
emoteko gordeko
dabe.



TXIKIPITI ETA ARRATOIA




Gaurkoan Txikipiti, motxilea hartu eta Pitiren etxera doa biak batera eguna pasatzeko. Pitiren etxea ez dago urrun baina hara joateko bide estu eta zikin batetik joan behar da. Horrezaz gainera euria egin barri dago eta txakur-korotz guztiak deseginduta dagoz espaloietan zehar.

Txikipiti espaloi batetik bestera doa garbiago dagoala uste dau eta. Izan be halantxe, garbiago dago eta pozago doa erropak zikintzeko arrisku barik.

Espaloi ertzean zabor-ontzi bat dago, ontzi hau beterik dago eta zabor-boltsa batzuk zelaian dagoz, batzuk apurtuta ete beste batzuk osorik.

Urrunetik ikusten ditu boltsak eta zerbait mogitzen dala be bai. Hurreratu da eta izugarrizko arratoi bat da. Eta ez hori bakarrik, atzean jarraitzen deutso jateko asmotan.





Zelango lasterketa! Ikustekoa benetan! Txikipiti
aurretik ito beherrean eta arratoia atzetik lau hankan,
iruntzi beharrean.

Estutasun honetan doala, Txikipitik aurrez aurre,
teilatuko urak jausten diran tuboak ikusten dau eta
haraxe sartzen da.

Arratoia be heldu da burdinezko tuboaren ondora eta
begira dago ia zer ikusten dauan. Ikusi ez dau
gauza handirik egiten, baina Txikipitiren
arnaz-hotsa entzuten dau eta trankil dago.
“Laster jatsiko da”, pentsatzen dau bere
artean arratoiak.

Halako baten, Txikipitiren
motxilea jausten jako arrotziari
burura. Arratoiak ahoa
zabalduta eta iruntzi
egiten dau.







“Oso ondo egon da zure bokadiloa. Orain zeu jan gura zaitut eta laster urteten ez badozu neu sartuko naz barrura eta ikusiko dozu”, esaten deutso arratoiak Txikipitiri.

Txikipiti berean dabil, ez dago geldi ezta gitxiagorik be. Arratoiaren hagin zorrotzak jatorkoz gogora txitean-pitean.

Arratoia aspertzen hasita dago eta bere erpak tubora hurreratu be bai, barrura sartu eta Txikipiti jateko asmoz.

Azkenez arratoiak badinotso: “Zu! Arteak hartu ezinik nago bai, eta gura badozu hasi zaitetz azken otoitzak egiten, neurea zara ta”.





Hori esanaz batera, arratoia antzerantz doa, espaloi erdiraino, salto bat egin eta tuboan sartzeko.

Arratoiak, arineketan hasteko dagoala saltoa egiteko, Txikipitiren abotsa entzuten dau. Hauxe dinotso Txikipitik: "Azken atoitzak, nik barik zeuk egin beharko zeunkezala uste dot".

Arratoiari ez deutso erantzuteko astirik emon, teila bat jausi jako buru gainera eta bertan hil.

Teilea nork bota dauan jakin gura dozu ezta? Nor izango da, ba....?. Txikipitik motxila Barruan beti eroaten ditu burnibizi edo iman batzuk. Eurei esker lortu dau tuboaren barrutik teilatuarino igotea.

EKATXA

Goizeko lainaberea kenduaz batera Txikipiti eta bere etxeok eguna emoten doaz kanpora. Arboladi eder baten eta erreka zabal baten ondoan gelditu dira. Sargori egiten dau eta Txikipiti erreka ertzeko intxaur-ondo baten azpian jesarri da.


Errekako urak oso garbiak dira eta bertako eskailu ta arrankariak ikusten dabil. Arrankariak egiten dabezan gora-goraka saltuak eta euren lasterketak itsututa izten dabe Txikipiti.

Erreka inguruan bero egiten dauanez gero, mariburduntzi edo mariorratz eta marisorginez beterik dago. Lorarik lora eta ertzik ertz dabilz gelditu ezinik.

Halako baten Txikipitik marigorringo bat ikusten dau. Asko gustatzen jakoz marigorringoak eta hegaz doala hauxe esaten deutso: "Marigorringo zurrigorringo, euria noiz egingo?".



Marigorringoa, hau entzunaz batera, indarrak galtzen hasi da eta beherantz dator uretara jausi arte. Jausi be errekearen erdi erdira jausi da.



Uretara jausi eta laster maritxikar gogor bat sortzen hasten da eta lehen ikusten izan diran marisorginak alde egiten dabe.


Marigorringoa estu eta larri dabil urten ezinik. Ahalegin handiak egiten ditu baina ez dau ezer lortzen.


Txikipitik, marigorringoaren larritasuna ikusirik, han inguruan dabilzan mariorratzei inora ez joateko esaten deutse, euren laguntza behar dauala eta.

Zorionez mixar bat dago intxaur bat jaten arbola gainean. Txikipitik honi be laguntza eskatzen deutso eta intxaur azal bi botateko esaten deutso. Mixerrak intxaur bat behera bota eta azal biak garbi-garbi eginda izten deutsoz.

Baina hori ez da nahikoa eta azal bati zuloak egiteko esaten deutso Txikipitik mixerrari. Honek iraztontzi baten moduan izten dau azal bata.

Margorringoa zarataka eta ohiuka dabil handik aterateko. Errekako ezkailuak hurreratzen hasi jakoz eta bildur da.







Txikipitik berehala bialtzen dau mixerra intxaur-ondo gainera intxaur garauak botaten hasteko, errerako arrain guztiak bildurtu eta marigorringoa askatzeko larrisatun haretatik.

Egin ditu txalupa bi. Bata zuloz beterik eta bestea zulo barik. Zulobakoan bera doa eta bestea marigorringoa aterateko da.

Txalupa bakoitzetik lau mariorratzek tiratzen dabe, baina ez da erreza erreka erdira heltzea. Haize gogorak jotzen dau eta mariorratzak aidean darabilz. Errekako urak be danbalaka dabilz eta Txikipitiren txalupan ura sartzen da.







Heldu dira
Marigorringoaren ondora.
Zulodun txalupa bere azpian
dago eta orain mariorratzak gora
egin behar dabe. Gorantz egiten
dabenean ura kanpora jausten da
zuloetatik eta marigorringoa kanpora,
baina Txikipitiren txalupeak ezin dau urten.
Txikipitiren txalupako mariorratzak ez daukie
indarririk, nekatuta dagoz eta uretara jausteko
arriskuan be bai.

Marigorringoak hau ikusten dauanean bere
hegoak sikatu eta bere lagunengana doa ekatxa gelditzeko
esaten.

Marigorringoak, ekatxa gelditzeko bakarrik ez deutse
esaten bere lagunei, ekatxa amaitu ondoren, Txikipiti eta
mariorratzei laguntzeko be eskatzen deutse errekatik urten
daien.



Ez dira lar ondo konpotzen Txikipiti eta maisua. Izan be, maisu barria da eta Txikipitik berak gura dauana egiten deutso, eta jakina, maisuari hori ez jako gustatzen. Hogeita zortzi lagun dira klasean.

Gaur maisuak eskolan txorien bizimodua azaldu deutse baina Txikipiti albora adi egon da azalpen honetan eta maisuak harrapatu egin gura dau zigortzeko.

Olgetako ordua heldu danean, maisuak itauntzen deutso: "Zu, Txikipiti!, badakizu zein dan hegaztirik zuhurrena?"

Txikipitik.-Bai, txitea.

Maisuak: Zelango txitea, gaur izen hori aitatu be ez dogu egin eta?.

T.-Edozein txita, bai!

M.-Hori azaltzen ez badeustazu ez dozu urtengo olgetan, ba, gero!.


T.-Ba....oso erreza da. Txiteak ez dauka aitarik eta ama lokea dauka.


M.-Eta ezer?.

T.-Ba....lehenengo egunerik dakiala bizimodua aurrera eroaten. Gitxi deritxazu?.

M.-Harrapatuko zaitut!.

Arratsaldean maisuak bertsoak zelan egin azaldu deutse. Horrezaz





gainera biderketa batzuk be egin dabez eta azken ordu erdian "8" zenbakiaren biderketa ikasi behar izan dabe.

Etxera joateko ordua heldu danean maisua beti legez biderketa itauntzen hasi da eta ez dakianak, ikasi arte, han gelditu beharko dau.

Lehenengo itauna Txikipitirentzat da.

M.-Txikipiti, zenbat da zortzi bider zero?.

T.-Orain ez dakit eta esango deusut gero.

M.-Hori ez bakadizu, gaur ez daukazu hemendik urteterik.

T.-Lehen bertsoak ikasteko esan deuskuzu eta orain biderketa itaundu?.

M.-Ba....biderketa hau bertsoz amaitzen ez badeustazu errukiena zara!. Zenbat da zortzi bider bat?.

T.-Etxera joateko ordua da ta banoa hemendik at.

M.-Zortzi bider bi?.

T.-Biderketak ikasteko beti nagi.

M.-Zortzi bider hiru?.

T.-Zu nagusi eta ni kridu.

M.-Zortzi bider lau?.

T.-Gaurkoak egin dau.

M.-Zortzi bider bost?.

T.-Urietako kaleetan hainbat txakur korotz.

M.-Zortzi bider sei?.

T.-Neu zigortu arte ez zagoz nasai.

M.-Zortzi bider zazpi?.

T.-Ikaslea beti irakaslearen azpi.

M.-Zortzi bider zortzi?.

T.-Gaur ez dago zure alde ez zeru ez ortzi.

M.-Zortzi bider bederatzi?.

T.-Ni zigortzeko horrenbeste aitzaki.

M.-Zortzi bider hamar?.

T.-Gaurkoz amaitu dogu eta banoa etxera gangar.

M.-Gaur lortu dozu baina bihar ez deusut hain errez parkatuko ba....!.

Hurrengo egunean eskolara sartuaz batera maisua barriro hasi da Txikipitiri itauntzen. Oraingoan zigor ederra dauka gertuta ez badaki eta maisuak horixe uste dau, ez dakiala.

**EZ NOZU
HARRAPATUKO
BA...!**

M: Txikipiti zutundu zaitez! Zenbat da zortzi bider zero?.

T.-Biri bi kendu ezker...

M.-Zenbat da zortzi bider bat?.

T.-Bederatzira heldu ez eta zazpitik at.

M.-Zortzi bider bi?.

T.-Zortzi gizonek horrexenbeste begi.

M.-Zortzi bider hiru?.

T.-Faraonek dozena bi kridu.

M.-Zortzi bider lau?.

T.-Klasekook eta beste lau.

M.-Zortzi bider bost?.

T.-Berrogei gizonek horrexenbeste okotz.

M.-Zortzi bider sei?.

T.-Egun biren orduak lo egingo zeunkez nasai.

M.-Zortzi bider zazpi?.

T.-5 eta 6 alkarren ondoan, ez banago gaizki.

M.-Zortzi bider zortzi?.

T.-32ri beste horrenbeste erantsi.

M.-Zortzi bider bederatziz?.

T.-Nire aitiak 72 urte etzi.

M.-Zortzi bider hamar?.

T.-Larogei urteko atso bat mar-mar.

M.-Zure biderketa izan da gaur nire ikasketa.




URI BARRI BAT BEHAR DOGU.

Txikipiti, mendi handi biren arteko urian bizi da. Eugero doa jendea urira etxe barri bat erosten. Etxegileak saldu eta saldu dabilz. Alborantza ezin da etxerik egin baina bai gorantza. Lehengo hamar pisuko etxeak, oraingoan semeen antza daukie. Hogeit, hogeita hamar eta berrogei pisuko etxeak egiten dabez. Etxe bakoitzean herri oso bat sartzen da.

Baina ez dira etxeak bakarrik egin. Urian bizi diranak, gehienak kotxea daukie eta uriko kaleak nahiko estuak dira. Jakina, lehenengo etxeak egin ezkerero gero kaleak ezin zabaldu.

Lantegira joateko be ordu bat eta bi be behar izaten dau batek baino gehiagok. Oinezkoak be alkar joka dabilz kaleetan lekurik ez daukielako nasai ibilteko.






Uriko jendea, ikusirik han zer gertatzen dan, bildurtzen hasi da eta konpontzeko zer egin pentsatzen.

Txikipitik pentsatu dau bere aldetik zer egin. Uri honetan kaleetako arazoak, teknika bidez konpontzen dira. Gaur eguneko sistema berezi bat dauka udaletxeak eta horregaitik ez da behar ertzainik trafikoa zuzentzeko.

Arazoak sortu ezkeru automatikoki beste era bateko makinak hasten dira martxan. Honetarako beren beregiko etxe bat dago uri inguruan.






Txikipitik lortu dau gau baten etxe horretara sartzea eta inguruak ondo ikusi eta aztertu ondoren, goizean kotxerik gehien dabilenean batetik bestera, argi indarra kentzen dau eta semaforo guztiak argirik barik izten ditu.

Zer izan da ha ! Bide kurutze guztiak kotxez josita eta gehienak alkar jota!. Suitzaileak be ezin joan inora ez daukie lekurik eta. Anbulantziak be geldi, euren argi beilegiak bidea zabaltzeko eskatzen egon arren.

Heldu dira tekniko batzuk elikoteroz eta makinak dagozan teiltuan jatsi ondoren konpontzea lortzen dabe.





Baina hemen ez da amaitzen dana.

Hurrengo egun baten Txikipitik semaforo guztiak kolore orlegian ipini ditu eta kotxe guztiak daukie bidea zabalik. Oraingoan be zelango ezbehar eta halteak! Uriko alkatea be hantxe harrapatu dau.

Hau gitxi bada, beste hau gogoratu jako handik lasterrea: lehen semaforoak berde ipini baditu, oraingoan danak gorri ipintea.

Hau be ikustekoa! Orain arte gertatu dinarak ikusita inor ez da mogitzen bada—ezpadan. Ikaragarrizko kotxe piloa geldi. Kotxeak bakarrik ez, autobusak, taxiak, mikroak, janariak ez dira heltzen dendetara, lantegiak be erdi hutsik...

Uriko jende guztia alkartu da batzar bat egiteko eta erabagiren bat hartzeko.

“Zergaitik egiten dira hain etxe handiak urian?”, esaten dau batek. “Zergaitik etorri da hainbeste jende herrira bizitzen?”, beste batek.

“Beste era bateko uri bat gura dogu, nasaia go bat, garbiago bat....”.

Alkateak hau ikusi ondoren, ez dagoala zeheginik esaten deutse, uri guztia bota eta barri bat egiten ez dan arten.

Jendea pozik dago uri barri bat egiteko eta hori egiteko onena, inguruko mendi handi biak uri zaharraren gainera bota eta zelaigune handi bat egitea da.

Arrezkero nasai eta pozik bizi dira eta geihenak bizikletaz dabilz batetik bestera joateko, ez dago aur gorarik ez aur beherarik eta.

ORDEAK MORDEA.



Orain arte Txikipitik hainbat mesede lortu dau satorrengandik. Eurei esker lortu dau hainbat eta hainbat sari. Aberastu be euren laguntzaz egin da.

Gau batzuk bere bila emon ondoren, aurkitu dau satorrak Txikipiti. Negarrez heldu jako satorra. Laguntza behar dabe berak eta bera lakoak. Jendea satorrak hilteko botitak ipinten hasi da sator-zuloetan eta gaur bat, bihar beste bat, hainbat sator hil da.

Txikipitik era guztietako botikak eroaten deutsez gaixorik dagozanak osatzeko eta hilteko botikak zeintzuk diran be esaten deutse. Horrerez gainera bakuna batzuk be emoten deutsez satorren batek benenoa jango baleu, kalterik ez egiteko.





Orain
benenoaz ezin hil
eta, jendea aitzur eta
eskopetaz hasi da.

Eguerdiko hamabietan
hainbat jende dago satorren zain. Lurra jotzen
hasten diranean hango tiro-hotsak ez dauka azkenik.

Eraso honetatik be urten gurean Txikipitiren laguntza
behar dabe. Piti be prest dago laguntzeko eta ederra
asmatu be herritarrei barre egiteko.

Benenez hil diran satorren narruak hartu eta,
guzurrezko satorrak ateraten dabez kanpora eta barriro be
tiro-hotsa.

Eraso honen ostean guzurrezko sator guztiak
desegindu dabez, baina Txikipitik eta Pitik
beste bi egiten dabez narru txatalez.

Honetan dabilzala herriko batzuei
hauxe gogoratu jake:

Txapelketa bat antolatzea ia
zeinek hilten dauan satorrik gehien.

Txikipitik eta Pitik hau jakiten
dabenean eta non izango dan be bai,
guzurrezko sator bana hartu eta txapelketa
ospatuko dan solora doaz. Bata soloaren
alde batean eta bestea bestean gelditzen
dira. Bada-ezpadan satorrei ez urteteko
esaten deutesee Txikipitik eta Pitik, laster
amaituko dabela harrapatariokaz eta.



Heldu dira eguerdiko hamabiak eta ehiztariok prest dagoz eskopetok eskuetan dabezalarik.

Halako baten Txikipitik atera dau bere guzurrezko satorra eta, paunnnn paunnnn!. Joan dira bila baina ezer ere ez.

Lehenengo tiro bien oihartzuna ixildu baino lehen, soloaren beste alderdian beste sator bat. Hara be beste tiro bi eta ezer ere ez. Gerotxuagoan bardin, batean tiro bi, bestean beste bi. Baina ez da satorrik agiri inondik.

Soloan dagozan ehiztari guztiak alkartu eta erdiak batera eta beste erdiak beste aldera joan eta, tiro ta tiro dabilz.

Aldean daukezan kartutxo guztiak amaitu edo erre dabez. Amurruaren amurruaz herrira joan eta hango kartutxo guztiak ekarri dabez baina alperrik. Egun osoa emon dabe sator bi hareen atzean eta ezin hil.

Herriko eta inguruko herrietako kartutxo guztiak amaitu dabezanean, joko honi itzi egin behar.



ZER? GUSTATU JATZULA?
BANEKIAN HASI BAINO
LEHEN. ZENBAT LAGUN
EGIN DOZUN, E!?. HARTU
EIZU BA, GUZTION AGURRA
ETA EZ GAIZUZ AHAZTU.
GURA DOZUN ARTE!



AURKIBIDEA

Txikipiti eskolan	7
Txikipiti hasarre	11
Txikipiti Afrikan	14
Txikipiti amesetan	17
Azken eguna Afrikan	21
Txikipiti eta satorra	25
Txikipiti estu	29
Txikipiti eta basaurdea	33
Txikipiti ikasten	36
Txikipitiren itaunak	41
Txikipiti eta Iñauteriak	45
Txikipiti askatzaile	49
Txikipiti eta txirringea	52
Txikipiti utxabaldan	55
Txikipiti zinean	58
Txikipiti meatzari	61
Txikipiti eta bere anaia zaharra	64
Txikipiti eta Piti	67
Txikipiti barri bila	70
Txikipiti eta arratoia	74
Ekatxa	78
Txikipiti eta maisu barria	82
Uri barri bat behar dogu	85
Ordeak mordea	89